

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

DIPUTATU NAGUSIAREN SAILA

164/2025 Erabakia, apirilaren 1ekoa, Foru Gobernu Kontseiluarena. Onespena ematea Rosa María Gómez Preciado Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren konfiantzako idazkari kargurako izendatzea

Arabako Foru Aldundiaren gobernuari, antolaketari eta araubide juridikoari buruzko martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauak 8 eta 24 artikuluetan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapen gehigarrian jasorikoarekin bat etorriz, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio, diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden konfiantzako funtzioekin behin-behineko lanpostuak beteko dituzten pertsonak izendatzea.

Horregatik, Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuak proposatuta, martxoaren 15eko 10/2023 Foru Arauaren 8 eta 24 artikuluek aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Rosa María Gómez Preciado izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.021).

Bigarrena. Erabaki honek ondorioak izango ditu 2025eko apirilaren 1etik aurrera.

Hirugarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko apirilaren 1a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Lehenengo diputatu nagusiorde eta Enplegu, Merkataritza, Turismo eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua

CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR